



30
urtez

Tolosaldea garatzen

Garapen jasangarria, kohesio
soziala eta lankidetzaren aldarri

Tolosaldea Garatzen: 30 urte eskualdearen eraldaketa hauspotzen

Tolosaldeko eragile sozioekonomiko guztien erreferentziazko gunea da Lehiberri Zentroa. Tolosaldea Garatzen eskualdeko 28 udalerrietako enpresa, langile, langabe eta ekintzaileentzat topalekua da, egitasmoak garatu eta formaziorako gunea. Lehiberri Zentroa 2013an eraiki zen Apatzerreka Industriegunean, baina lehenagotik dator erakundearen lana.

Krisi garaian sortu zen eskualdeko garapenerako agentzia, 1994an, langabezia altua eta paper sektorearen eraldaketa tarteko, eskualde mailako enplegu politika aktiboak sustatzeko xedearekin. Urte hauetan zehar, eskualdearen erronka ekonomiko eta sozialetara egokitzeko gai izan da, beti behar berrietara moldatuz.

Garapen jasagarriaren, kohesio sozialaren eta lankidetzaren aldeko konpromisoa ditu oinarrian, Tolosaldearentzat etorkizun oparago bat eraikitzekeo tresna gisa.

■ Enpresa arteko lankidetzak sustatuz

Tolosaldea Garatzenen ardatz nagusietako bat eskualdeko ehun enpresariala indartzea da. Enpresa txikiek osatzen dute nagusiki industria, eta tamaina horrek zailtasunak ekar ditzake merkatu lehiakorretan. Horregatik, duela 16 urte abian jarri zen Lehiberri Foroa, non eskualdeko 68 enpresek arazo komunak aztertzen eta negozio aukerak partekatzen dituzten. Honek merkatu zabalagoetara iristea ahalbidetzen die, proiektuen neurria eta osagarritasuna handituz.

■ Talde ahulenei arreta berezia

2018az geroztik, agentziak indartu egin du zaurgarritasun egoeran dauden kolektiboek emandako babesa: kualifikazio baxua duten pertsonak, 45 urtetik gorakoak, migratzaileak edo DSBE jasotzen dutenak. Tolosaldea LAB Foroa, enplegua eta inklusioa ardatz hartuta, talde horiei lan-merkatu sartzeko ibilbide pertsonalizatuak eskaintzen dizkie, gizarte ekonomiako eragileekin lankidetzan.

■ Turismoa, motor ekonomiko garrantzitsua

Turismoaren alorrean, eskualdeko eskaintza turistikoa sustatzera bideratu dira ahaleginak; produktu turistiko etiko eta familiarrei lehentasuna ematen zaie, turismo aktiboa, enogastronomikoa eta kulturalaz gain biztanleen bizikaltatearen hobekuntzarekin uztartuz. Next Generationeko turismo jasagarriko plangintzaren bidez, bi milioi euroko inbertsioarekin, azpiegitura estrategikoak hobetzea da xedea, sektorea tokiko ekonomiaren osagarri gisa indartzeko.

■ Iraunkortasuna eta etorkizuneko erronkak

Tolosaldea Saretzen 2018-2025 plan estrategikoak ekonomia zirkularra eta energia-eraginkortasuna bezalako lan-lerro berriak ireki ditu. Gizarte eta ekonomia ehunaren bilakaera ikusita, etorkizunerako erronka nagusietako bat migrazioaren kudeaketa izango da, etorkinentzat 2025ean zabalduko den harrera gunea bezalako proiektuekin. Era berean, Lehiberri Foroa indartzea eta lankidetzak publiko-pribatua sustatzea lehentasunezko helburuak izango dira.

■ Eskualde konektatuago eta kolaboratiboago bat lortzeko bidean

Tolosaldea Digitala plataformak eskualdeko 600 enpresa baino gehiago konektatzen ditu. Gainera, 28 udalek osatzen dugu, elkarlana gure lanetako ardatz bilakatuz. Tolosaldeko sare ekonomikoa ere lurraldean barreiatuta dago, 54 industriagunetan sakabanatuta.

■ Ekintzailak bultzatzen, enplegua sortuz

Ekintzailak Tolosaldeko garapen ekonomikoaren funtsezko zutabea da, enplegua zuzenean eta zeharka sortzeko modu eraginkorra. Urtero 200 pertsona inguruk aurkezten dute beren negozio-ideia, eta horietatik, urtean 30 bat enpresa berri sortzen dira Tolosaldea Garatzenen laguntzaz. Azken 27 urteetan, 700 enpresa inguru sortu dira horrela, eta 1.300 lanpostu berri.

30 urte, 3 mugarri

Tolosaldea Garatzenek 30 urteko ibilbidea burutu du aurten, eskualdearen garapen ekonomiko eta sozialaren alde egindako lanarekin. Garai ezberdinetan erronka ugari gainditu behar izan ditu, eta denboran zehar etengabe moldatu da Tolosaldearen behar eta erritmoetara.

Urteurren honetan, hiru mugarri nagusi nabarmendu daitezke agentziaren historian: 2007an sortutako Lehiberri Foroa, eskualdeko enpresa txikien arteko lankidetzaren sustatzeko erreferentzia; 2013an inauguratutako Lehiberri Zentroa, berrikuntza eta enpresen hazkundea errazteko espazio estrategikoa; eta eskualdeko eragile sozioekonomikoentzat erreferentziatzeko topagunea. 2018-2025 Plan Estrategikoa, garapen jasangarri eta inklusiboaren aldeko erronka berriak jorrazteko gida. →



Lehiberri
Zentroa

Lehiberri Foroa: Lankidetzaren eredu publiko-pribatuaren eredu bat (2007)

2007an abian jarritako Lehiberri Foroa Tolosaldeko enpresa txikien arteko lankidetzaren sustatzeko tresna nagusia da. Egun, 68 enpresa biltzen dira foro honetan, arazo komunak partekatu eta lankidetzaren proiektuak garatzeko. Haren helburua merkatu berrietara eta zailtasun handiko sektoreetara iristeko aukera ematea da, eskualdearen industrian hazkundea eta berrikuntza bultzatzeko.



Lehiberri Zentroaren inaugurazioa (2013)

Lehiberri Zentroaren irekiera 2013an, beste mugarri garrantzitsu bat izan zen garapen-agentziaren bilakaeran. Tolosaldea Garatzenen jardueraren zentralizatzeko eta eskualdeko enpresa eta ekintzaileentzako erreferentziatzeko gune bat sortzeko xedea du. Azpiegitura hau ezinbesteko bihurtu da prestakuntza, aholkularitza eta berrikuntza sustatzeko, enpresa-ekimen berriak errazteko eta eskualdeko ehun ekonomikoa indartzeko.



2018-2025 Plan Estrategikoa (2018)

Tolosaldea Saretzen 2018-2025 planak eskualdearen garapen jasangarri eta orekatuaren aldeko apustua finkatu du. Ekonomia zirkularra, energia-eraginkortasuna eta inklusio soziala bezalako lan-lerro berriak integratu dira, eskualdearen behar berriei erantzuteko. Plan honek eskualdeko erakunde eta enpresen arteko sinergiak indartzeko aukera eman du, garapen integratua bultzatzeko.



“Elkarlanerako espazioa eskaintzen dugu, harremanak sortu eta sinergiak bultzatzeko”



Batak besteari eragiten dio. Sistema beraren parte diren heinean, xede eta betebeharrak desberdinak dituzte Tolosaldeko garapen agentziako sailetan. Hala ere, eskualdeko beharrak asetzeko, batera egiten dute lan. Aimar Arzelus, Garbiñe Mendizabal eta Leire Otaegi, bakoitza bere eremutik, Tolosaldearen etorkizuna eraikitzen ari dira.

Hiru sail arduradunek argi dute lankidetzaren delakoa arrakastaren oinarria. Industria indartzea, udalerrien garapen jasangarria eta enplegu-aukerak sustatzea helburu bateratu baten parte dira: Tolosaldea eskualde dinamiko eta inklusibo bihurtzea. Eskualdeko erakundearen eta herritarren arteko lotura indartuz, Tolosaldea Garatzenek eskualdearen hazkunde eta jasangarritasunaren aldeko apustua berresten du. "Lan handia dago aurretik, baina guretzat erronka bat baino gehiago, aukera paregabea da," diote.

Garapen agentziaren lanak ondorengo sailetan banatuta daude: enpresak, enplegua, ekin-tzailtza, turismoa, aniztasuna, kontsumoa eta udalak.

Zeharrekitasuna eragileen artean sustatzeaz gain, erakundearen beraren identitateari lotuta ere badago. Edozein sektoretan eskualdearen traktore izateko egiten du lan Tolosaldea Garatzenek. Horretarako, beharrak detektatzean, proiektu forma ematen saiatzen dira programa desberdinen bidez, bakoitzak bere eragileekin landu ahal izateko. "Elkarlanerako espazioa eskaintzen dugu, harremanak sortu eta sinergiak bultzatzeko".



Tolosaldea
udalak
garatzen



Garbiñe Mendizabal

Tokiko garapen jasangarriaren alde

"Tokian tokiko errealitateak ulertzea eta horietara egokitzea da gure arrakastaren gakoa"

Udal Sailak Tolosaldeko 28 udalerriekin koordinazio estuan lan egiten du. Eskualdeko garapen jasangarria eta udalerrien beharretara egokitutako proiektu estrategikoak sustatzea du helburu. "Tokian tokiko errealitateak ulertzea eta horietara egokitzea da gure arrakastaren gakoa," azaldu du Mendizabalek. "Udalerrri txikiek askotan baliabide mugatuak dituzte, eta gure helburua da haien proiektuak aurrera eramateko laguntza ematea".

Azken urteotan, Udal Sailak ingurumenarekin lotutako hainbat proiektu estrategiko bultzatu ditu, hala nola, energia berriztagarrien sustapena edo ekonomia zirkularraren inguruko ekimenak. Halaber, garraio publikoaren erabilera areagotzeko eta azpiegitura jasangarriak hobetzeko planak martxan daude. "Garapen ekonomikoa eta jasangarritasuna elkarrekin uztartzeko beharra gero eta handiagoa da. Horretarako, udalerrri bakoitzaren indarguneak eta erronkak zehaztasunez aztertzen ditugu," azaldu du.

Tolosaldea Garatzenek sustatzen duen Idazkarien Foroa, bestalde, Tolosaldeko idazkari eta idazkari-kontuhartzaileen bilgunea da; bere helburua eskualdeko udalerrri desberdinetako idazkarien artean lankidetzaren sustatzea eta eguneroko jardunean dituzten erronkei erantzuteko baliabideak eta informazioa partekatzea da. Tolosaldeko udalerrri txikiagoetako administrazioak indartu nahi dira ●



Tolosaldea
enplegua
garatzen



Leire Otaegi

Enplegu aukerak sortzen

"Itinerario pertsonalizatuak eskaintzen dizkiegu, egokitutako prestakuntza eta laguntzarekin"

Tolosaldea Garatzeneko Enplegu Saileko lan nagusia eskualdeko enpleguaren sustapenean eta langabetuen integrazioan oinarritzen da. "Enplegua sustatzeaz gain, pertsonen autonomia eta bizi-kalitatea bermatzeko tresnak lantzen ditugu", nabarmendu du Otaegik. Bere sailak hainbat jarduera garatzen ditu, hala nola, lan-orientazioa, prestakuntza-programak eta enpresa eta langileen arteko loturak sustatzea.

Enplegurako politika aktiboak eskualdean garatzea da Enplegu Saileko helburu nagusia. Horretarako, lan bila dabiltzan pertsonekin zein langileak behar dituzten enpresekin egiten dute lan.

Hor garapena izan du, baita ere, Enplegu Sailak, uneko egoerari erantzunez: laguntza zerbitzuak eskaintzeko egiten dute lan, langileei euren bizitza berrantolatzen lagundu eta laneratzeko laguntzeko. "Momentu honetan, langabezia tasa oso apala da, eta kasuistika edo baldintza berezidun herritarrei laguntzeko ari gana lanean". Lanbideren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Europako Gizarte Funtsaren diru laguntzen bitartez laguntzen dituzte.

Horrez gain, Tolosaldeko enpresekin harreman zuzena izaten dute, eskualdeko enplegu beharrak ezagutzeko eta profil egokiak bilatzeko. "Horretan oinarritzen gara gure prestakuntza eskaintza diseinatzekoan", dio ●



Tolosaldea
enpresak
garatzen



Aimar Arzelus

Enpresa sarea indartzen

"Industria sendo eta berritzailea ezinbestekoa da Tolosaldearen etorkizunerako"

Aimar Arzelusen arabera, bere lanaren ardatza eskualdeko enpresa-sareari laguntzea da, lehiakorrago izan dadin. "Industria sendo eta berritzailea ezinbestekoa da Tolosaldearen etorkizunerako", azaldu du Arzelusek. Tolosaldea Garatzenek bi norabide nagusitan egiten du lan: batetik, enpresa ekimen berriak sortzen laguntzen Ekintzaitza Sailatik; eta bestetik, dagoeneko martxan dauden enpresei laguntza ematea, gure sailatik.

Askotariko formazioak ere ematen dituzte, enpresa-alor desberdinetan eraginez. Lehiberri Foroaren atarkepean doaz lan horiek. 68 enpresarekin osatutako sarea da, bakoitzaren interesak batu eta elkarri laguntzeko sortutakoa duela 18 urte.

Arzelusen arabera, eskualdeko enpresa txiki eta ertainen (ETE) erronkarik handienetako bat teknologia berrietara egokitzea eta 4.0 industriaren estrategiak garatzea da. "Digitalizazioan eta berrikuntzan inbertitzea ezinbestekoa da, baina enpresa txikiek askotan baliabide mugatuak dituzte. Gure lana haiei tresnak eta laguntza ematea da".

"Eskualdean erronka handi bat dugu etorkizunera begira: langile kualifikatuen faltari aurre egitea. Talentua erakarri eta mantentzeko estrategiak garatzen ari gara. Hori ezinbestekoa izango da gure herrien nortasuna eta dinamismoa mantentzeko" ●

■ ELKARRIZKETA

“Osagarritasuna da Tolosaldearen ezaugarri nagusia. Gure herriek ezaugarri desberdinak dituzte”

Eskualde mailako plataforma erreferentea da Tolosaldea Garatzen. Denera 28 udalerrik osatzen dute, eta hori da garapen agentziaren bereizgarrietako bat. Ahulgune bihurtu zezakeen hori indargune bilakatu dute: eskualdetasuna. Jokoa ematen die proiektuak martxan jarri eta osagarritasunak bilatzeko orduan, Joxe Luis Urdagarin Tolosaldea Garatzeneko gerentearen arabera.

■ **Nola txertatzen duzue kide asko izate hori erakundearen lan dinamikan?**

Hiru organok osatzen dute gure erakundea. Batzar orokorrean 28 udaletako ordezkariak daude, normalean alkateak, eta horiek urteko memoria eta kudeaketa plana onartzen dituzte. Bestalde, administrazio kontseilua dago, batzarrak izendatutako 11 kidek osatutakoa. Organo operatiboagoa da hori. Lehendakari batzordean, azkenik, lehendakariak eta lehendakari ordeak hartzen dute parte. Kasu honetan, Andu Martinez de Rituerto Tolosako alkatea eta Alaitz Labaien Amezketako zinegotzia.

■ **Lan proposamen desberdinak jartzeko, gero, zein pauso ematen dira?**

Bi norabidetan egiten dugu lan. Hamarkadotan sendotutako proiektu batzuk badiugu, euren inertzia eta dinamika propioak badituztenak, nahiz eta udalen oniritzia jaso behar duten haiek ere batzarrean. Beste batzuetan, guk proposatzen dizkiegu udalei kudeaketa planaren bitartez. Eta hirugarren kasu batzuetan, udalek edo bestelako eragileek hala eskatuta garatzen ditugun lanak daude. Esan bezala, plataforma bat garelako eskualdeko eragileentzat.

■ **Zeintzuk dira eskualdearen berezitasunak?**

Osagarritasuna da Tolosaldearen ezaugarri nagusia. Gure herriek ezaugarri oso desberdinak dituzte, eta ondorioz, baita lehenetsun desberdinak ere. Ez daukate zerrikusirik Tolosa batek edo Gaztelu batek izan ditzaketen beharrek. Hor engranaje bat behar da eskualdea batuko duena, eta saiatzeko gara hori izaten. Herritarrok, udalerrri mailako ikuspegia izaten dugu maiz, eta udalen arabera ulertzen ditugu gauzak. Baina hor zera gertatzen da: zerbitzuak batez ere Tolosan zentralizatuta daudela eskualde osorako dimentsionatuta, baina industria eskualdeko 54 industria gunetan barreiatuta dagoela. Alegia, industriaren zati handi bat herri txikietan dagoela, hau da, Tolosak behar ditu. Eta alderantziz, herri txikiek behar dute Tolosa beste zerbitzu edo azpiegitura beharrik asetzeko.

■ **Tolosaldea Garatzenek herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen artean zein nabarmentzen dira?**

“Udal Saila duen garapen agentzia bakarra gara gure lurraldean. Etengabe ari gara elkarrizketan, ekimen berriak martxan jarri eta lehendik ditugunak egokitzen”

Beharren arabera da onura hori, erlatibo da. Eskualdean, gehienek, ezagutzen gaituzte, baina normalean ez dute burutzen dugun lanaren ikuspegi globalik. Izan ere, batzuek ezagutzen gaituzte enplegu zerbitzuetatik igaro direlako; beste batzuek, kontsumitzaile bulegoan izan direlako; batzuek, jatetxea dutelako eta turismo alorretik lagundu diegulako. Zentzu horretan, gure erronka da zerbitzuen osotasuna ezagutzera ematea.

■ **Askotarik kolektiboekin egiten duzue lan.**

Bai. Haien beharrik asetzea da gure xede nagusia, tokiko erakundea garen heinean. Enplegua da gure muina. Eskualdean kaltetutako enplegua sortzea zuzeneko zein zeharkako tresna eta jardueren bidez. Gaur egun, langabezia tasa %7,6koa da; datu nahiko onargarria da, baina oraindik 1.825 langabetu daude. Enpresa munduarekin zerikusia daukaten beste kolektibo batzuk ere badaukate gure zerbitzuetara sarbide zuzena, aholkularitza eskatu edo diru laguntzetara sarbidea eskatzeko, besteak beste. Kontsumitzailearen Bulegoak ere estimulu handia du, erreklamazioak jarri eta herritarren zalantzak argitze aldera.



■ **Etorkizunera begira, zein izango dituzue erronka nagusiak?**

Migratzailen kolektiboarekin egiten dugun lana izango da gure datorren hamarkadako erronka nagusietako bat. Migratzaileei harrera egiteko protokolo bat ezarri dugu eta harreta-bulegoa irekiko dugu, Tolosaldean bizi nahi duten lagunek euren bizi-proiekturako egin beharreko urratsetan laguntzeko. Gizarte inklusioa eta elkarbizitza sustatzeko jarduerak ere ari gara antolatzen.

Gainera, 2018az geroztik, lehentasuna eman diogu kolektibo zaugarrienak laguntzeari laneratzeko ibilbide pertsonalizatu bidez. TolosaldeaLab Foroarekin, adibidez, lan-merkatuan modu iraunkorrean sartzen laguntzen diegu, haien gizarteratzea eta bizi-kalitatea hobetzea errazteko azken helburuarekin.

■ **Zein izan da erakundearen bilakaera azken hiru hamarkadetan zehar?**

Sensibilidadeak aldatu dira gehien. Azken finean, inguruaren beharretara egokituz erreakzionatu behar dugu. Hori zikloei dagokionez, baina baita gizartearen bilakaera estrategikoaren ondorioz ere. Ingurumena da adibide argia. Udal sailean txertatuta dugun lan ildoak da hau, energiarekin batera lantzen duguna. Nolabait ere, gizartearekin batera ikasten dugu, eta arazoak aurreikusi, ekidin eta irtenbidea eman dezaketena tresnak sortu behar ditugu.

■ **Zein dira gaurkotasan handieneko gaiak islatzen dituzten proiektuak?**

Alorraren arabera, hainbat izan daitezke. Metalmekanikako sektorea da nagusi gurean, balio erantsi handiko produktuak eskaintzen dituzten enpresez osatua. En-

pleguaren %40,3 industria sektorean dago. Tolosaldeako ehun industrialak anitza eta dinamikoa da, baina gehienak enpresa txikiak dira, eta lehiakortasunari dagokionez, erronka bat da hori. Horien garapena indartzeko tresnak eskaintzen ditugu: prestakuntza, teknologia modernizatzeko laguntzak, industria 4.0 bideratzeko estrategiak, talentua erakartzeko planak eta kudeaketa prozesuen profesionalizazioa

“Langabezia tasa %7,6koa da; datu nahiko onargarria da, baina beste gabezia batzuk azalera dituzte egoera honek. Nolako enplegua ari gara sortzen?”

sustatzeko ekimenak, besteak beste. Bestalde, Elkar Ekin programaren bidez, kolektibo zaugarriekin egiten dugu lan enplegua eta gizarteratze-laneratzea sustatzeko. Enplegarritasun ibilbideak lantzeko egiten dugu lan horien bidez, kolektibo desberdinekin. Duela 15 urte, enplegu bulegoa eta orientatzaileak ginen, baina orain, gainera, arreta pertsonalizatuagoa ematen dugu.

■ **Eta turismoari dagokionez?**

Next diru laguntzen bitartez, turismo-inpaktua duten azpiegiturak hobetzeko erabiltzen dituzte beren partidak, betiere garapen ekonomikoa bizilagunen ongizatearekin orekatzeko helburuarekin. Turismo etikoa lehenetsi dugu, eta hainbat segmentutan espezializatu da, halanola turismo aktiboan, enogastronomikoan, kulturean eta, nola ez, familia-turismoan.

Eskualdeko azpiegiturak hobetzea daktaren produktu turistikoaren sorkuntzan zentratu gara, eta horiek aberastera datoz laguntzok. 40 bat proiektu ditugu eskuartean.

■ **Nolakoa izaten ari da 2024 urtea Tolosaldea Garatzenentzat?**

Une ona bizi dugu. Lehen esan bezala, langabeziari dagokionez, nahiko baikorrak gara eskualdean bizi dugun unearekiko. Hala ere, beste gabezia batzuk azalera dituzte egoera honek, eta arreta berezia eskaintzen diogu enpleguaren kalitateari (baldintzak, iraupena...). Nolako enplegua ari gara sortzen?

Gainerakoan, gaur gaurkoz giroa lagungarri dela antzematen dugu. Ikusten dugu proiektu berriak martxan jartzeko motibazioa badela, inbertsioak egiten direla eta eragile sozialen sarea oso aktiboa dela. Gero eta lan gehiago egiten dugu eragile sozioekonomikoen eta hirugarren sektorearen eskutik, gure ekintzen inpaktua areagotzeko.

■ **Zer egoeratan dago Tolosaldea Garatzen 30. urteurren honetan?**

Gure ibilbide luzean etapa ezberdinak bizi izan ditugu, eskualdearen ziklo ekonomikoetara egokitutakoak. Gaur egun, hazkunde eta garapen fase betean gaude.

Horretarako, egiten du lan gure talde tekniko egonkorrek, agentziaren helburuak betetzeko eta Tolosaldearen erronka berriari aurre egiteko. Tolosaldea Garatzenen helburua ez da hazkunde korporatiboa, eskualdera baliabideak erakartzea eta alor bakoitzeko eragileen lana bultzatzea eta dinamizatzea baizik ●

Etxe bat guztiontzat

Mundu mailako elkarrizketa eta ardurei adi eta erantzuna emateko prest, baina gure inguruari estuki lotuta, bi noranzkoetan hazten da Tolosaldea. Bere 28 udalerriekin, mosaiko baten antzekoa da: anitza. Eta horien guztien ordezkari, gure ikuspegi beti eskualde osoaren ikuspegi integralean oinarritzen da, garapen bateratua ahalbidetuz.

Horrela soilik lortu dugu urte hauetan guztietan eskualdea indartzea. Erabateko koordinazioa dugu udalerriekin, eta sare estua osatzen dugu bertako enpresekin, gizarte-eragileekin eta herritarrekin. Harreman horiek zainduta lortu dugu garapen ekonomikoa eta soziala orekatua eta jasangarria izatea. Eskualdetasunak, gainera, berekin dakar elkartasunaren balioa. Gure eskualdetasuna eta lantaldea dira Tolosaldea Garatzenek bultzatzen duen garapen ereduaren oinarriak. Etxe honetan ere, zutik jarraitzeko

beharrezkoak dira zutabe sendoak eta teila-tu indartsua, baina baita barruan diharduten guztien lankidetzeta eta harmonia ere.

Gure talde teknikoa anitza, dinamikoa eta konprometitua da, eta eskualdearen behar sakon ezagutzen ditu.

Denon lanari esker, enpresei eta herritarrei eskaintzen dizkiegun zerbitzuak eta programak gero eta eraginkorragoak dira. Talde-lana da gure eguneroko jardunaren motorra, udalerrri bakoitzaren berezitasunak errespetatuz eta guztien arteko lankidetzeta bultzatuz. 2025ean, hurrengo bost urteetarako norabidea argituko duen plan estrategikoa adostea egokituko zaigu, esku artean ditugun lanak ordenatu, behar berriak identifikatu eta horiei erantzuna ematen jarraitzeko. Tartean, enpresa sarea indartzen laguntzea kalitatezko enplegua sor dezaten, energiaren erabilera efizientearen sustapena, ga-



Andu Martinez de Rituerto,
Tolosaldea Garatzeneko lehendakaria

rapen jasangarriko helburuekin lerrokatzea, turismo jasangarriko proiektuen garapena eta abar luze baten bidez. Tolosaldea, azken finean, komunitate kohezionatu bat da, bere aniztasunari esker aberatsa, eta bere elkarlanari esker indartsua. Horrek egiten gaitu desberdin. Esaerak dioen bezala: etxe honetan sartzen dena, etxekotzat hartuko da ●



Tolosaldea
garatzen

tolosaldea@tolosaldea.eus
943 65 45 01



Tolosaldea
udalak
garatzen

Eskualdeko udalei eta garapen jasangarriaren alorreko eragileei zuzendua
Garbiñe Mendizabal
mendizabal@tolosaldea.eus



Tolosaldea
aniztasuna
garatzen

Migrazio eta aniztasun alorreko eragileei zuzendua
Amaia Iturri
migrazioa@tolosaldea.eus



Tolosaldea
turismoa
garatzen

Turismo eragileei zuzendua
Olatz Ilarregi
ilarregi@tolosaldea.eus



Tolosaldea
kontsumo
bulegoa

Kontsumitzaileei zuzendua
Ainhoa Orrantia
kontsumo@tolosaldea.eus



Tolosaldea
enpresak
garatzen

Eskualdeko enpresei zuzendua
Aimar Arzelus
arzelus@tolosaldea.eus



Tolosaldea
ekintzailetza
garatzen

Ekintzaileei zuzendua
Jon Zubeldia
zubeldia@tolosaldea.eus



Tolosaldea
enplegua
garatzen

Lan bila dabiltzan pertsonei zuzendua
Leire Otaegi
otaegi@tolosaldea.eus



OSTEGUNA, 2024KO ABENDUAK 19

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez

Kudeatzailea: Eider Aierbe Isasti

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661678 818, publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoetaledea: 687 410 022.

anoetaldea@ataria.eus

Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus

Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goitz, Ekuain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:

